AKE ROBOTIKA STREET DANCE ZURA LANDU TXIKI BOXING MONITORE ESKOLA





IZEN

arizmendi ikastola

HEZKUNTZA EZ FORMALA

# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK





2023-2024 IKASTURTEA



GAZTELUPE

DBH 3-4 BATXI 1-2 MAILAK

AKE ROBOTIKA STREET DANCE ZURA LANDU TXIKI BOXING MONITORE ESKOLA

# ESKAINTZA

01 ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

02 STREET DANCE

03 ROBOTIKA

04 TXIKI BOXING

05 ZURA LANDU

06 MONITORE ESKOLA



# 01 ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

Jarduera fisikoa modu egoki batean egitea, ondo pasatzea eta ohitura osasuntsuak sustatzea da helburua, jarduera guztiak euskaraz izanik. Hau horrela, igeriketa, boleibola, futbola eta pilota egongo dira. DBH3-4 eta batxi 1-2 mailako ikasleei zuzenduta.

**IZEN-EMATEA** → Izen ematea Alexia bidez egingo da

**KONTAKTUAK**

- ARDURADUNAK → Mikel Aizpurua eta Gorka Gabilondo, 943 772 025 kirolak@arizmendi.eus
- IZEN-EMATEA → **Alexia** bidez egingo da

**informazio +**



arizmendi ikastola

# 02 STREET DANCE

Street Dance edo Dantza Urbanoan, lagun artean, Dantza modalitate eta koreografia desberdinez gozatzeko aukera izango duzu. Sormena mugimenduaren bidez lantzeko, inprobisazio, pauso eta erritmo desberdinak ikasiz. Talde-lan eta autoestimaren garapena hobetzen saiatuko gara, gorputz adierazpenaren bitartez.

| | |
|---|---|
| NORENTZAT | LDBH 3-4 eta Batxi 1-2ko ikasleentzat |
| EGUNA ETA TOKIA | Asteazkenetan Ferixaleku gunean |
| ORDUTEGIA | 19:00-20:00 |
| KUOTA | 30€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina) |
| PLAZA MUGATUAK | Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 |
| ARDURADUNAREN KONTAKTUA | Olmar Elejaga, 679 619 530 |
| IZEN-EMATEAK | Alexia bidez egingo da Uztailaren 20 tik irailaren 22ra |



arizmendi ikastola

03

# ROBOTIKA

Ikasleek robotak diseinatu eta eraikitzen dituztenean estruktura, mekanika, zinematika, geometria, trigonometria, elektronika, logika, programazioa, informatika eta kontrolean murgiltzen dira, hardware zein software estandarra erabiliz. Talde laneko konpromezua lantzen dute, denboraren zein baliabideen kudeaketaren garrantzia ikasiz.

Bideojoko baten garapen prozesuak sormena, pentsamendu logikoa eta pentsamendu algoritmikoa indartzen du.

| | |
|---|---|
| NORENTZAT | DBH3-4 eta Batxi 1-2ko ikasleentzat |
| EGUNA ETA TOKIA | Ostegunetan Gaztelupe gunean |
| ORDUTEGIA | 18:15-19:30 |
| KUOTA | 50€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina) |
| PLAZA MUGATUAK | Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 |
| ARDURADUNAREN KONTAKTUA | Alberto Asin, 660 382 674 |
| IZEN-EMATEAK | Alexia bidez egingo da<br>Uztailaren 20 tik irailaren 22ra |




arizmendi ikastola

# 04 TXIKI BOXING

Ikastaro honetan, boxeoan erabiltzen diren ariketa eta teknika desberdinak landuko dira; desplazamenduak, kolpeak sahiesteko modu ezberdinak eta era guztietako boxeoko kolpeak. Kontakturik gabeko ekintza izango da, botako diren kolpe guztiak beti klasean erabiliko diren elementu ezberdinen aurka (txurroak, zakuak, eskuzorroak...) botako dira ez beste kide baten kontra. Haurraren koordinazioa eta arreta garatzen lagunduko du. Era berean eta inolako bortizkeriarik gabe (kontaktu fisikorik gabe) modu kooperatibo batean lan egingo dute, norberaren autokontrola izaten eta errespetuaz jokatzen ikasiz.

**NORENTZAT** → DBH3-4 eta Batxi 1-2ko ikasleentzat

**EGUNA ETA TOKIA** → Astelehenetan Ferixaleku gunean

**ORDUTEGIA** → 17:00-18:00

**KUOTA** → 30€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina)

**PLAZA MUGATUAK** → Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15

**ARDURADUNAREN KONTAKTUA** → Ixa Rodriguez 676 866 922

**IZEN-EMATEAK** → Alexia bidez egingo da Uztailaren 20 tik irailaren 22ra



arizmendi ikastola

# 05 ZURA LANTZEA

Zura zizelkatzeak eskuzko tresnak erabiltzeko gaitasuna ematen du, eta irudimena eta sormena garatzeko balio du.

Tailugilearen autoestimua handitzen du beti harro sentituko den lan baten aurrean.

Hastapen-ikastaroa irudi geometriko sinpleak, triangeluak, lauburuak, loreak eta abar marrazten eta zizelkatzen ikastean datza. Ondoren, irudi ugari egiteko aukera ematen du: esekitokiak, erlojuak, hilarriak, argizaiolak, kutxak, etab.

| | |
|---|---|
| **NORENTZAT** | DBH3-4 eta Batxi 1-2ko ikasleentzat |
| **EGUNA ETA TOKIA** | Astearteak<br>ARTE (Arrasateko tailaginen elkartea) egoitzan |
| **ORDUTEGIA** | 17:00-19:00 |
| **KUOTA** | 25€ hilean (8 kuota, azaroa-ekaina) |
| **PLAZA MUGATUAK** | Gutxienez 8 ikasle eta gehienez 15 |
| **ARDURADUNAREN KONTAKTUA** | Toño 610 419 040 |
| **IZEN-EMATEAK** | Alexia bidez egingo da<br>Uztailaren 20 tik irailaren 22ra |



arizmendi ikastola

06

# MONITORE ESKOLA

## ZER DA MONITORE ESKOLA?

Arizmendi Ikastolan, **Batxilergoko ikasleei zuzenduta** dago monitore edo hezitzaile eskola. Ikastolen Elkarteko lankideekin elkarlanean kudeatzen dugu, Zirimola Aisialdi taldearekin.

Dakizuen bezala, Hezkuntza Ez Formalean hainbat ekintza antolatzen ditugu, ikasturtean zehar, Arizmendi Ikastolako hezkuntza komunitateko partaideei zuzenduta; ikasle, guraso eta profesionalei. Gure ikasleek beraien ibilbidea egiten joaten dira, ikasturtez ikasturte, gustuko gauzak identifikatuz. Batxilergora iristean, aukera berri hau zabaltzen zaie, beraiek **monitore edo hezitzaile izateko formazioa jasotzen dituzte eta Ikastolan antolatzen ditugun ekintzetan praktikak egiteko aukera izaten dituzte, Ikastolako jaietan, udaleku irekietan, udalekuetan...**

Formazio honek, **garapen pertsonalean hazten eta hezten lagunduko dio ikasleari**. Haurra izango da protagonista eta monitorea edo hezitzailea bidelagun. **Aniztasuna, inklusioa zein parekidetasuna sustatuko ditu eta lehiakortasuna baztertu. Talde lanean trebatuko dira, kolaborazioa eta kooperazioa sustatuz.**

INFORMAZIO GEHIAGO

# Ezaugarri nagusiak

## Izen-emate epea

Alexia bidez egingo da,
uztailaren 20tik irailaren 22ra

## Ordaintzeko era

Hilaren 5ean
ikastolako
kontu korrontetik
pasatuko
da kuota.

## Saioen hasiera eta amaiera

Urriko lehen astean hasiko
gara eta maiatzaren 31an
bukatu

# Oharrak

- **Ekintza baterako dauden plaza baino eskaera gehiago jasotzen badira, 2 talde osatzen saiatuko gara, ezinezkoa izango balitz, zozketa egingo genuke.**
- **Ekintza aurrera ateratzeko gutxieneko ikasle kopurua lortu beharko da.**
- **Behin ikastaroa hasi eta gero baja eman ezkero ez da ziurtatzen kuotarik ez dugunik kobratzen jarraituko.**

BALDINTZA LEGALAK: Arizmendi ikastolak antolatutako ekintzetan formulario honetan izena eman duen umearen irudia elkarteak ateratako bideo edota argazkietan agertu daiteke. Ulertuz, aipatutako irudiak irakaskuntza edo ekintzaren promoziorako izango direla, edozein ikus-entzunezko komunikabidetan agertuz. Beste aldetik eskatutako datuak Arizmendi ikastola bezala erabili ahal izango ditu deskribatutako jardueraren helburuak bete ditzan. Lanketaren arduradunarenganako, Arizmendi ikastola, atzipean, zuzenketa, deuseztapen eta aurkaritza eskubideak erabili ahal izango dira Otalora Lizentziaduna kalea 8, 20500 Arrasate helbidera idatzi bat bidaliz.

arizmendi ikastola

# bideoak

Laburpena



Luzea



Sakatu irudietan bideoak ikusteko